

Adei Enparantza Agirre

E maila • 2 aipamena

Adei Enparantza naiz, eta 2009ko apirilaren 30ean jaio nintzen. Beasaingo Alkartasuna Lizeoan 5. maila egiten ari naiz. Nire andereñoak, Margak, etxera deitu zidanean aipamena lortu nuela esateko, izugarrizko poza sentitu nuen. Hasieratik parte hartu izan dut lehiaketa honetan, baina orain arte inoiz ez nuen saririk jaso. Nire ipuina, "Non galdu dira ametsak?", oso dibertigarria dela uste dut, eta espero dut zuek ere berdin pentsatzea.



NON GALDU DIRA AMETSAK?

Gauero ohera joaten gara amets berriak izatera, baina badakizue benetan nortzuk egiten dituzten ametsak? Ikusezinak diren eta ezagutzen ez ditugun laguntxoek asmatzen dituzte ametsak. Beraiek, gauero, gure etxeetan sartzen dira, isil-isilik. Lehendabizi lokartzeko hautsa botatzen digute maitagarriek, eta ondoren, atzetik etortzen diren ipotxek ametsak asmatu eta gure belarrietatik sartzen dituzte goxo-goxo.

Goiz batean, Mintxo eta Pintxo izeneko ipotx bihurriak bere herri magikotik mendira joan ziren, menditik herrira begiratu eta han bizilagun guztiak begi- zuloekin eta logurak jota ikusi zituzten, etxeko-lanak egin gabe, alaitasunik gabe, irribarrerik ez kaleetan, denak aho-zabalka, ...

Zer gertatu ote zen pentsatuz itzuli ziren Ametsen Ipotxen herrira. Iritsitakoan Bartolo Handia erregearengana joan ziren gertatutakoa kontatzera.

- Lasai! Seguru maitagarriak bidean norbaitekin hitz egiten geldituko zirela, badakizue zein berritsuak diren.

Eguzkia ezkututzen ari zen eta ilargia irteten. Ametsen poltsak prest zeuden gauerako eta ipotxak ere bai. Ipurtargien gainean etxez etxe ametsak banatzen joateko irrikitzen zeuden. Eta halaxe abiatu ziren. Baina Haizearen eta Aritzen etxera iristean esna zeudela konturatu ziren. Orduan loaren maitagarriak oraindik etxe horretara ez zirela iritsi pentsatu eta ondokora joan ziren. Baina han ere gauza bera, eta hurrengoan ere bai, eta ondorengoan ...

Nahasten hasiak ziren, horregatik maitagarrien zuhaitzera joan ziren, beraien geletara sartu eta han inor ez zegoela ikusi zuten, ez maitagarriarik, ezta hauts magikorik ere.

Orduan, maitagarrien laguntzailearen bila joan ziren. Einstein ontzarengana abiatu ziren. Berak eramaten zituen gauero etxeetara. Herrian batetik bestera ibili ondoren, Peruren eta Leireren etxeko teilatu gainean ikusi zuten Einstein ontza, lasai-lasai han goian eserita.

Pintxo ipotxak galdetu zion:

- Non dauden maitagarriak?

- Hemen utzi ditut. – esan zuen ontzak – Baina oraindik ez dira irten.

Ipotxak tximiniatik behera sartu ziren banan-banan. Jaitsitakoan maitagarrien poltsa magikoa ikusi zuten egongelaren erdian, baina han ez zegoen beste inor, beno hobeto esanda bai, Marra-miau katua lo zerraldo zakuaren aldamenean. Inguratu ziren ikustera, eta zer topatuko eta hantxe zeuden maitagarri txikiak zaku barruan, hauek ere lo. Zakuak atzamarka zuen eta handik dariola. Ziur katuak zulatu eta denak lo hartu zutela. Marra-miau ondo ezagutzen zuten denek, gauero beraien atzetik ibiltzen zen harrapatu nahian.

Saiatu ziren maitagarriak esnatzen baina alferrik. Loaren hauts asko zuten gainean.

Orduan Mintxo ipotxari ideia bat etorri zitzaion burura. Gaueko izaki jakintsuenarengana joango ziren, ILARGIARENGANA! Hark esango zien zer egin zezaketen, eta halaxe joan ziren berarengana.

- Kaixo Ilargi amandrea! Loaren maitagarriak hauts magikoaren poltsara erori dira eta ezin ditugu esnatu.

Ilargia isil-isilik geratu zen, eta handik denbora batera esan zien:

- Inor ezin da esnatu aurretik ametsik ez badu egiten.

Ipotxak ziztu bizian joan ziren Peruren eta Leireren etxera. Maitagarriei ametsen hautsak belarritik sartu, masaileko goxo bat eman eta segituan esnatu ziren.

Maitagarriek kontatu zieten zer gertatu zitzaien:

- Perurengana eta Leirerengana gindoazen hautsak botatzera, bat-batean, Marra-miau katua azaldu zenean saltoka. Atzamarrarekin zakua zulatu eta denok lokartu gara.

Denak poz-pozik jarri ziren. Eta gainera, oraindik, bazegoen astia gaua salbatzeko. Maitagarriak hautsekin lokartu eta ipotxek belarritik ametsak sartzeko. Gaua guztia jo eta ke aritu ziren herrian zehar ametsak banatzen.

Hurrengo egunean, bizilagun guztiak barrezka eta alai ikusi zituzten, pozik eta gustura . Lo behar bezala egitea, eta ametsak izatea benetan garrantzitsua baita.

Eta Marra-miau? Ba ipotxen atzetik! Eta hauek korrikan, baina pozik dena bere onera itzuli delako.